



Liburutegi Nagusia Alderdi Eder

2026ko apirilaren 14a

<http://www.donostiakultura.com/liburutegiak/>

Delphine de Vigan

(Boulogne-Billancourt, Frantzia, 1966)

Delphine de Vigan (Boulogne-Billancourt, 1966ko martxoaren 1a) frantses idazlea da.

Lehen eleberria, *Jours sans faim*, Lou Delvig goitizenaz kaleratu zuen. Neurri handi batean, istorio autobiografiko bat da, anorexiaren aurkako 19 urteko borroka eta sendabidea azaltzen dituen.

Geroztik, Delphine de Vigan-ek bere izenaz argitaratu ditu 2005ean *Les Jolis Garçons* eleberri laburra, eta 2006an *Un soir de décembre*.

No et moi (2007) eleberria hizkuntza askotara itzulia izan zen eta zinemara egokitua izan zen.

Rien ne s'oppose à la nuit (2011) eleberria bere amaren bizitzaren kontakizun bat da, familia osoaren bizipenen bitartez. Sari asko jaso zituen Frantzian.


D'après une histoire vraie (2015) bere eleberrian oinarrituta, Roman Polanski zinema zuzendariak film bat egin zuen, 2017ko Cannesko zinemaldian estreinatu zena lehiaketaz kanpo.

Les loyautés (2018) eleberriarekin itzuli zen frantses literaturaren agertokira, ia hiru urteko isilaldi baten ostean.

Gipuzkoako Liburu Denden Elkartek ematen duen Zilarrezko Euskadi Saria eman zioten Delphine de Vigan 2022an, *Les grâces* (2019) eleberriaren gaztelaniazko bertsioagatik (itzulpena: Pablo Martín Sánchez).

Les enfants sont rois (2021) eleberria Éditions Gallimard etxean argitaratutako lehen eleberria izan zen.

Esker onak



Zer gertatzen da gure esker onak adierazi aurretik hitzak galtzen baditugu? Esker onak eleberrian, Delphine de Viganek oroimenaren eta isiltasunaren ertzak arakatzen ditu, gogoan gordetako zor txiki eta handien inguruan. Michka, adineko emakume bat, hitzak galtzen hasten da, eta horrekin batera, sortzen zaizkionak ezin adieraziz gelditzen da. Bere ondoan, Mariek eta Jérômek bizitzaren esanahia berriz topatuko dute, esker onaren ahalmenean eta zaugarritasunaren edertasunean. Michkaren auzoa da Marie: txikia zenean eta bere amak alde egiten zuenean, Michkak zaintzen zuen. Jérôme, berriz, geriatrikoko logopeda da, eta, afasia baten erruz galtzen ari den hizketa, partzialki bada ere, berreskuratu nahi dio

Michkari. Estilo neurritsu, apaindura gutxikoan idatzita, bi ahotsetara egindako narrazio honek oroimenaz, iraganaz, zahartzeaz, hitzez, ontasunaz hitz egiten digu, eta gure bizitzetan garrantzitsuak izan zirenekiko esker onaz. Hiru pertsonaia ahaztezin hauek testu hunkigarri eta samur honetan txirikordatuz elkartzen dira, eta irakurlea beren bizipenetan sakontzera gonbidatzen dituzte, galdetuz: norentzat gordetzen dituzu oraindik zure azken hitz esker onekoak?

Delphine de Viganen argitalpenak euskaraz

Esker onak(20) **N VIG**

Aiora Jaka

Donostia, 1982.

Gasteizko Letren Fakultatean Itzulpengintza eta Interpretazioko lizentzia ikasi zuen lehen promozio hartako ikasleetakoa bat izan zen Jaka 2000 eta 2004. urteen artean. Ikasketak amaituta, atzerrian eta Euskal Herrian ibili zen itzulpenari eta hizkuntzei lotutako lanbideak graduondoko ikasketekin uztartzen: euskara eta gaztelania irakasle Ingalaterran, hiztegi-gile Elhuyar fundazioan, Eskura Itzulpen Zerbitzuetan itzultzaile, basqueliterature.com eta EIZI Eren webguneetan webmaster eta itzultzaile, doktoretza-ikasle Quebecen eta Alemanian... 2011n aurkeztu zuen bere doktore-tesia, Joseba Sarrionandiaren itzulpengintzari buruzkoa, eta 2011tik 2015era Euskal Herriko Unibertsitatean aritu zen lanean, itzulpengintza arloko ikasgaiak irakasten. 2015etik 2021era Quebecen bizi izan zen, itzulpenak egiten, hizkuntzak irakasten eta interprete komunitario moduan lan egiten. 2021etik, Euskal Herrian bizi da, eta gaur egun itzultzaile autonomoa da.

Itzulpen literarioei dagokienez, hiru aldiz irabazi du Haur Literaturako Vitoria-Gasteiz saria: 2011n, Janosch alemanaren *Esan, ama, nork egiten ditu umeak?* liburuaren itzulpenagatik; 2019an, Clotilde Perrinen *Gaiztoak* lanarengatik (Joana Pochelurekin batera), eta, 2021ean, Ibon Martínen *Onin eta sorginen sekretuagatik*.

Helduen literaturan, berriz, 2013an Jokin Zaitegi beka irabazi zuen Maialen Marin itzultzailearekin batera Mo Yan idazle txinatarraren *Hori da umorea, maisu!* obra euskaratzeko. Bitan irabazia du Literatura Unibertsala lehiaketa ere: 2017an Mario Benedettiren *Udaberi kantoi-hautsia* itzultzeko, eta 2022an Ahmadou Kouroumaren *Independenzien eguzkiak* euskaratzeko. Azken lan horrekin 2024ko Itzulpengintzako Euskadi saria jaso du.

Kritikak esandakoak

“Isiltasunak leku hartzen duen nobela bat da Esker onak. Delphine de Vigan idazle frantsesak 2019an argitaratu zuen, eta aurten ekarri du euskarara Aiora Jakak, Igela argitaletxearen bidez. Aipatzekoa da itzultzailearen lana, hizkuntzak horrenbesteko garrantzia duen eleberri honetan.

Michkaren azken egunak kontatzen ditu liburu honek. Adineko emakume bat da, “zaharra”, bere hitzetan eta Arantxa Urretabizkaiak esango lukeen moduan. Bakarrik bizi izan bada ere, jada ez da horretarako gai, eta erresidentzia batera lekualdatu dute. Gutxinaka, hitzak galtzen hasten da, eta hizkuntzarekin batera, sosegua, indarra, bizinahia. Maiz sentitzen da ziurgabe eta zalantziati, amesgaiztoek erasaten diote, nekeak gaina hartzen dio. Azken gurari bat baino ez du buruan Michkak, umea zela aterpe eman zion familiari bere esker ona adieraztea.

Bi ahotsek egituratzen dute nobela, txandaka, eta hala, emakume helduaren gainbeheraz kanpoko begiradaren bidez ohartzen gara, Marieren eta Jérômeren ikuspuntutik. Oso ongi islatzen da zahartzaroko galera kognitiboak sortzen duen ezinegona eta inkomunikazioa, isiltasunean elkar ulertzera derrigortuta baitaude, azkenerako, pertsonaiak. Posizio interesgarriak dituzte bi ahotsek, eta horietatik abiatuta, familia-harremanez, samurtasunaz eta eskertzez gogoetatzera daramate irakurlea. Hala ere, Michkarekiko hartu-emanen nahiko lauak dira aldi berean, beti ulerkor eta beti adeitsu, ez dute emozio gatazkatsurik gorpuzten, tristuraz harago.

Eleberri soila da, laburra, minimalista. Gai sakonetan sartu arren, arintasunak ezaugarritzen du testua. Ondorioz, istorio nagusiari eusten dioten azpitramei ez zaie apenas garatzeko espaziorik ematen. Kanpo-narratzaile batek eskainiko luke horretarako aukera, akaso. Hain zuzen ere, pertsonaiek esker ona adierazteko edo ez adierazteko duten beharra agertzen da, baina ez da sakontzen horretarako izan ditzaketen arrazoietan. Ezer gutxi dakigu, honenbestez, Michkak gerra garaian bizi izan zuen haurtzaroz, Jérômek aitarekin duen harremanaz edota Mariek haurdunaldian sentitzen duenaz. Nobela osoago bat litzateke, hartara. Soiltasunaren alde, baina, De Viganek

isiltasunari leku egitea erabaki du, hutsuneak irakurleak bete ditzan, inteligentziaz eta umorez, Michkak egiten duen bezala.”

Irati Majuelo / Berria, 2025-11-23

Erabilitako iturriak

Wikipedia

https://eu.wikipedia.org/wiki/Delphine_de_Vigan

Kritiken hemeroteka

<https://kritikak.armiarma.eus/?p=9284>

Nor da Nor

<https://nordanor.eus/norda?id=225&tmp=1768496940428>